

Xarnege



Xarnege, edo Sharnègo, hitz gaskoia dugu. Euskal Herria eta Gaskoinaren arteko mugan dauden herriak, euskaraz eta gaskoieraz egiten dutenak, izendatzeko erabiltzen da. Hori dela eta, Xarnegeren musikak bi kulturen elementu komun asko barneratzen ditu.

Joan Baudoin (VERD E BLU, UN PAS UN SAUT), **Lucia Longué** (PAKOPOLEN, DUS MOTS DE LETRAS, BAAL) eta **Simon Guillaumin** (PAKOPOLEN, PASS'AIRES, ROCK'N'TRAD, PAROULAS DE BAL, BAAL) **Juan Ezeiza** (GANBARA, EURITAN BLAI, LANTZ) eta **Josean Martin Zarko** (GANBARA, ALBOKA, EURITAN BLAI, LANTZ) elkartzen dira. Ondorioa beren tradizioen bi musiken uztarketa da.

Sustrai ezberdinak izanda ere, Xarnegeren erreperitorioan Mendebaldeko Pirinioaren bi aldetako dantza eta doinuak lotzen dira. Gaskoinak eta Euskal Herriak mugaz gain kultur eta etnografi elementu anitz konpartitzen dituzte. Musika, horietako bat baino ez da.

Branliak, gabotak, jauziak, segidak, polkak, rondeus, muxikoak, balsak... modu gertu batez interpretatuak bi herrion adierazpideak dira, erroen ahaidetza publiko handiak ongi ezagutzen ez badu ere. Doinu beren bertsio ezberdinak Euskal Herrian eta Gaskoian aurkitzen ditugu, tresna ezberdinez, hizkuntza ezberdinez edo dantza modu ezberdinez baliatuz, baina izpiritu beraz.

Xarnegeren musika tradiziozkoa da, tinbre zaharretan aberatsa eta sailkatzeko zaila, gure arbasoen egiten zuten moduan dantzatzeko edo kantatzeko modukoa.

Entzulegoaren erantzuna oso gertua da, musikari gaskoin eta euskaldunekin sortzen den musikarekiko harreman estua dela eta. Xarnegek kontzertuan bi herrien sustrai komunak deskubritzeko proposamena egiten digu.



Xarnegek tresna hauek jotzen ditu:

- Albokak
- Bohak (Landetako kornamusak)
- Ttun Ttun – Tambourin
- Flabuta – Xirula
- Zarrabete (Vielle à Roue edo Zanfona)
- Besson (kreaziozko ttun ttunaren garapena)
- Bouzouki
- Bibolina
- Soinu txikia
- Baxua
- Kitarra
- Ahotsak

Errepertorioa gutxi gora behera ordu eta erdikoa da. Tradiziozko doinuak dira gaskoin eta euskaldunen moduan interpretatuak. Bi kulturetan aurkitzen diren doinuei garrantzi berezia eman diegu, eta instrumentazioa bereziki zaindu dugu Joan luthier eta bere herriko folkloreaken ikertzailea baita. Berak kontzertuetan taldeak erabiltzen dituen tresna asko egiten ditu.

- **Joan Baudoin:** Bohak, xirulak, ttun ttun eta ahotsa.
- **Simon Guillaumin:** Zarrabete eta ahotsa.
- **Lucia Longué:** Xirulak, besson, soinu txikia, boha eta ahotsa.
- **Josean Martín:** Bouzouki, kitarra.
- **Juan Ezeiza:** Bibolina, baxua eta albokak.

<http://www.xarnege.com>

xarnege@xarnege.com

Tfno: (0034) 605 715 735 (Josean)

Fax: (0034) 943 332 397